

## **DEFINIZIOAK**

# **TRESNA ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINEN AITORPENAREN ESTADISTIKA (090223)**

Hemen agertzen diren definizioak honako arau hauetatik ondorioztatzen dira:

- Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen **2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legea**.
- Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinei buruzko otsailaren **20ko 110/2015 Errege Dekretua**.

### **Tresna elektriko eta elektronikoak edo tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak**

Funtzionatu ahal izateko korrante elektriko edo eremu elektromagnetikoak behar dituzten tresnak nahiz korriente edo eremu horiek sortu, transmititu eta neurtzeko behar diren tresna oro. Horiek tentsio nominalaren 1.000 volt-tik gorakoa ez den korrante alternoarekin edo 1.500 volt-tik gorakoa ez den korrante zuzenarekin erabiltzeko dira.

### **Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak edo TEEH**

Uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 3.a) artikuluan jasotzen den definizioarekin bat egiten duten eta hondakin bihurtzen diren tresna elektriko eta elektroniko guztiak. Definizio horrek bere gain hartzen ditu baztertzen den unean produktua osatzen duten osagai, submultzo edo kontsumigarri guztiak.

### **Tresna elektriko eta elektronikoaren merkaturatzea**

Merkataritza-jarduera batean doan edo ordainduta Espainiako merkaturan hornitzeko, banatzeko, kontsumitzeko edo erabiltzeko den tresna elektriko eta elektronikoaren produktu bat.

### **Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinen tratamendua**

Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak balorizatu edo ezabatzeko operazioa (balorizatu edo ezabatu aurreko prestaketa barne). Horiek berrerabiltzeko prestaketa edo “tresna elektriko eta elektronikoaren berriazko tratamendua” izeneko operazioak barne hartzen dituzte. Horiek berrerabiltzeko prestaketaren ondoren egiten diren tratamenduak dira eta 22/2011 Legearen 31.2 artikularen bigarren paragrafoan eta XIII. eranskinean daude jasota.

## **Berrerabilitzea**

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak edo horien osagaietako batzuk sortu ziren erabilera berberara zuzentzea ahalbidetzen duen operazio oro. Termino honek tresna edo haren osagai batzuk jarraian erabiltzea jasotzen du, biltzeko guneari edo banatzaileei, birziklatzeko enpresei edo ekoizleei itzulita.

## **Birziklatea**

Ekoizpen-prozesu baten barruan, hondakinak berriz prozesatzea, hasierako xede bererako edo beste xede batzuetarako, balorizazio energetikoa barne.

## **Balorizazioa**

22/2011 Legearen II. eranskinean aurreikusitako edozein operazio.

## **Ezabatzea**

22/2011 Legearen I. eranskinean aurreikusitako edozein operazio.

## **Etxeko edo etxe partikularretatik datozen tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak**

Etxe partikularretatik edo duten izaera edo kopuruarengatik etxe partikularretako hondakinen antzekoak diren merkatarizatetik, industrietatik, erakundeetatik edo beste iturri mota batetik datozen tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak.

Etxe partikularretan zein etxe partikularak ez diren bestelako erabiltzaileek erabili ahal dituzten tresna elektriko eta elektronikoak hondakin bihurtzen direnean, etxeko tresna elektriko eta elektronikoen hondakintzat joko dira.

## **Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen balorazio-tasa**

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen portzentajea, kudeatutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztien aldean.

## **Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak berrerabiltzeko edo birzikaltzeko tasa**

Berrerabilitako edo birziklatutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztien portzentajea, kudeatutako tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztien aldean.